

529/2022 Ebazpenaren eranskina, 2022ko martxoaren 11koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaskuntzako errektoreordearena, 2022-2023 ikasturteko unibertsitate masterreko ikasketa ofizialetako prozedura administratiboen egutegia ezartzen duena.

**2022-2023 IKASTURTEKO EGUTEGI ADMINISTRATIBOA
UNIBERTSITATE MASTERREKO IKASKETAK**

NUPen webgunean emanen dira ezagutzera ebazpen honetan ezarritako epeak —aplikazio informatikoen, bulegoen eta antzekoen irekiera-ordutegiari buruzkoak—.

Data jakin batean onartua izanez gero, data horren ondo-ondoko epean SOILIK du ikasleak matrikula formalizatzeko eskubidea. Masterreko ikasketa ofizialetan onartua izateko araudiaren arabera, ikasleak ondo-ondoko epe horretan ez badu matrikula egiten, ikaspostua erreserbatzeko eskubidea galduko du; hortaz, berriz egin beharko du aurreinskripzioa hurrengo epean, eta gainerako ikasleen baldintza berberetan lehiatuko da.

Epe guztiak prozesu bakoitzerako ezarritako azken eguneko 14:00etan bukatuko dira.

1. AURREINSKRIPZIOA

Aurreinskripzioa	Epeak
Aurreinskripzioa egiteko lehenbiziko epea	2022ko martxoaren 14tik apirilaren 29ra
Aurreinskripzioa egiteko bigarren epea	2022ko ekainaren 10etik 27ra
Aurreinskripzioa egiteko epe berezia	2022ko abuztuaren 1etik 15era

Masterrean sartzeko ikasketak bukatuak ez dituzten ikasleek epeetako edozeinetan egiten ahalko dute aurreinskripzioa. Ikasposturen bat hutsik gelditzen den masterretan baizik ez da zabalduko aurreinskripzioa egiteko epe berezia.

Unibertsitatean ikasteko bisa bat behar duten ikasleek lehenbiziko aldi egin behar dute aurreinskripzioa ikasturte hasierako eskoletara garaiz iristeko.

Bigarren epean eta hurrengoetan, bisa behar duten ikasleek haren kopia aurkeztu beharko dute aurreinskripzioa formalizatzeko.

2.- ONARTU DIREN IKASLEEN ZERRENDA, ERREKLAMAZIOAK ETA IKASLE BERRIEN MATRIKULA

Ikasle onartuen zerrendarekin batera, eskaeren itxaron-zerrenda bat argitaratuko dute masterren zuzendari akademikoek, beharrezkoa izanez gero. Bi zerrendak baremoaren arabera egonen dira ordenatuak. Graduondoko Ikasketen Bulegoak zerrenda horrekin beteko ditu ikaspostu hutsak.

Aurreinskripzio epea	Onartuen zerrendak argitaratzea	Erreklamazioak	Matrikula
1.a (*)	2022ko maiatzaren 23an	2022ko maiatzaren 24an eta 25ean	2022ko ekainaren 2an eta 3an
2.a	2022ko uztailaren 22an	2022ko uztailaren 26an eta 27an	2022ko uztailaren 28an eta 29an
Berezia	2022ko abuztuaren 31n	2022ko irailaren 1ean eta 2an	2022ko irailaren 2an eta 5ean

(*) Ekainaren 7an, ikasle onartuen beste zerrenda bat argitaratuko da ikaspostu hutsak izanik itxaron-zerrenda duten masterretan. Zerrenda horri erreklamazioa aurkezteko epea ekainaren 8an bukatuko da. Matrikula ekainaren 9an egingen da.

Ikasketak bukatuak dituzten eta gainerako baldintzak betetzen dituzten ikasleak soilik azalduko dira lehenbiziko aurreinskripzio epean onartutako ikasleen zerrendetan.

Masterrean sartzeko ikasketak bukatuak ez dituzten ikasleek epeetako edozeinetan egiten ahalko dute aurreinskripzioa. Matrikula baldintzatuko ikasleak, 822/2021 Errege Dekretuaren 18.4 artikularekin bat etorritik, ikasle onartuen bigarren zerrendan eta hurrengoetan baizik ez dira onartuko.

Honako unibertsitate master hauetan ezin da matrikula baldintzaturik egin:

- Bigarren Hezkuntzako Irakasletza
- Abokatutzarako Sarbidea
- Osasun Publikoa
- Proiektuen Zuzendaritza

3.- IKASKETAK AURREKO IKASTURTEETAN HASI ZITUZTEN IKASLEEN MATRIKULA

Matrikula

Aurreko ikasturteetako ikasleen matrikula (ikasleak aukeratuko du epea)

4.- UNIBERTSITATE MASTERREKO IKASLE GUZTIEK EGIN BEHARREKO PROZEDURAK**Matrikulako akatsak zuzentzeko aldia**

Eskolak hasi eta astebete pasatu arte, matrikulako akatsak zuzentzen ahalko dira matrikulatutako kredituak doitzeko.

Matrikula aldatzea edo baliogabetzea

Ikasturtean zehar aldatzen ahal da irakasgaietako matrikula araudian jasotako kasuetan: irakasgaia ematen hasi den egunetik 10 egun pasatu arte beranduenez ere, baldin eta irakasgaia desagertu ez bada.

Matrikula baliogabetzea

Matrikula baliogabetzea
2022ko urriaren 5era arte

Master Amaierako Lanaren matrikula egitea

Master Amaierako Lanaren matrikula egitea
2023ko maiatzaren 12ra arte
Master Amaierako Lanaren matrikulari berariaz uko egitea
2023ko uztailaren 31ra arte

Kredituen balioa aitortzea eta transferitzea

Eskaerak	Ikastegiak ebazpena ematea	Kudeaketa administratiboa
2022ko urriaren 7ra arte	2022ko urriaren 31ra arte	Ikasle bakoitzari jakinaraziko zaio

Master bikoitzetako programak uzteko eskaerak

Prozesua	Epea
Master bikoitzetako programak uzteko eskaerak	2022ko uztailaren 18tik 20ra

Traupen arauak ez bete arren ikasketekin segitzeko eskaerak

Prozesua	Epea	Matrikula
Traupen Batzordea	2022ko irailaren 1era arte	Ikasle bakoitzari jakinaraziko zaio

Ikasketak ikasle elkartu gisa hasteko eskaerak

Prozesua	Epea	Matrikula
Onartzeko eskaera	2022ko abuztuaren 1etik aurrera	Ikasle bakoitzari jakinaraziko zaio

5.- BESTE PROZEDURA BATZUK**UDAZKENEKO SEIHILEKOA**

Prozesua	Epea
Deialdia udaberriko seihilekotik udazkeneko seihilekora aurreratzea	2022ko azaroaren 7tik 11ra
3. deialdiko epaimahaia eskatzea	2022ko abenduaren 9ra arte
Udazkeneko seihilekoko irakasgaiak konpentsazioaren bidez gainditzeko eskaera	2023ko martxoaren 17ra arte

UDABERRIKO SEIHILEKOA

Prozesua	Epea
3. deialdiko epaimahaia eskatzea	2023ko maiatzaren 2ra arte
Udazkeneko eta udaberriko seihilekoko irakasgaiak konpentsazioaren bidez gainditzeko eskatzea	2023ko uztailaren 18ra arte

MUGIKORTASUN PROGRAMAK**Kanpora joanen diren ikasleak**

Aldia	Ikasleek ikasketa konpromisoa betetzea	Irakasle arduradunek ikasketa konpromisoa balidatzea
Udazkenekoa eta/edo udaberrikoa	2022ko maiatzaren 9tik 27ra	2022ko maiatzaren 30etik ekainaren 10era
Aldia	Ikasleek ikasketa konpromisoa aldatzea	Irakasle arduradunek ikasketa konpromisoa aldatzea

Udazkenekoa	2022ko urriaren 14ra arte	2022ko urriaren 14ra arte
Udaberrikoa	2022ko martxoaren 3ra arte	2022ko martxoaren 3ra arte

NUPera etorri diren ikasleak

Aldia	Matrikula	Matrikula aldatzea
Udazkenekoa	2022ko irailaren 1etik 7ra	2022ko irailaren 8tik 14ra
Udaberrikoa	2023ko urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra	2023ko otsailaren 6tik 10era

AKTAK ENTREGATZEA

Aktak	Ikasturtea	Epearen azken eguna
Udazkeneko seihilekoa	2022/2023	2023ko martxoaren 10eko 13:30 arte
Udaberriko seihilekoa	2022/2023	2023ko uztailaren 14ko 13:30 arte
Master Amaierako Lanak (defentsa irailean)	2022/2023	2023ko urriaren 2ko 13:30 arte